# SAN MARTIN'EN KANTA (*)

*Iruñea, 1983-VI-24*

*A. Yulen Yurre*

*"Yurre-tar Julian Aita Kaputxinoa euskaltzain urgazle izendatua izan da aurten (1983. urtean). Izendapen honekin Euskaltzaindiak aitortza bat egin nahi dio euskararen alde burutu dituen lanengatik. Nahiz eta bizitzako zatirik ederrena Txinan mixiolari bezala igaro, anitz idazki, eliz lan etab. eginak ditu euskaraz Aita Yurrek. 1960an Loramendiren olerkiak eman zizkigun liburu sotil batean; 1965ean, berriz, bi liburu Batikanoko Kontzilioari eskainiak. Eta ez goaz aldizkarietan sakabanaturik dagoen lan-piloa aipatzera.*

*Doniane egunean Iruñeko batzarrean herri-kanta hau* —San Martinen kanta—, *berak Zeanurin bildua, ekarri zigun Aita Yurrek. Guztiz berria eta ezezaguna ez izanarren, zertzelada berri jakingarri batzuekin dakarkigu. Ongi etorria zorionak urgazle berri eta euskaltzale zaharrari!"*

(*) Fr. Luis Villasante, Euskaltzainburuaren sarreratxoa da hau.


San Martin'en kanta
1
San Mar-tin, e-saik bat. Gu-re
Jauna bera dok bat, berak salbau-ko ga-yo-zak.
2
San Mar-tin, e-saik bi. E-ro-
ma'koal-ta-re santu-ek bi. Gu-re Jauna bera dok
bat, berak sal-bau-ko ga-yo-zak.
3
San Mar-tin, e-saik i-ru. I-ru
Tri-ni-da-de-ak. E-ro-ma' koal-ta-re santuek
bi. Gu-re Jau-na be-ra dok bat, berak sal-
bau-ko ga-yo-zak.
4
San Mar-tin, e-saik lau. Lau-rek


e-banje-lis-tek. I-rurek Tri-ni-dade-
ak. E-ro-ma'koal-tare santu-ek bi. Gu-re
Jauna beradok bat, berak sal-bau-ko ga-yo-zak.
5 San Mar-tin, e-saik bost. Bos-tak
Kris-to'ren lla-gak. Lau-rek e-ban-je-lis-
tek. I-rurek Tri-ni-da-de-ak. E-ro-
ma'koal-ta-re santuek bi. Gu-re Jauna beradok
bat, berak sal-bau-ko ga-yo-zak.
6 San Mar-tin, e-saik sei. Sei-rek
seirek kande-lak. Bos-tak Kris-to'ren lla-
gak. Lau-rek e-ban-je-lis-tek. I-ru-rek


Tri-ni-da-de-ak. E-ró-ma'koal-ta-re santuek
bi. Gu-re Jau-na bera dok bat, berak sal-
bau-ko ga-yo-zak.
7
San Martin, esaik zaz-pi. Zaz-pi
Sa-kramentu-ek. Sei-rek di-re kande-
lak. Bos-tak Kristo'ren lla-gak. Lau-rek
e-ban-je-lis-tek. I-rurek Trini-da-de-
ak. E-ró-ma'koal-ta-re santu-ek bi. Gu-re
Jauna bera dok bat, berak sal-bauko ga-yo-zak.
8
San Martin, e-saik zor-tzi. Zor-tzi,
zor-tzi ze-ru-ek. Zaz-pi sa-kra-men-tu-


ek. Sei-rek di-re kan-de-lak. Bos-tak
Kristo'ren lla-gak. Lau-rek e-ban-je-lis-
tek. I-rurek Tri-ni-da-de-ak. E-ro-
ma'koal-ta-re santu-ek bi. Gu-re Jauna beradok
bat, berak sal-bau-ko ga-yo-sak.
9
San Mar-tin, esaik bedra-tzi. Bedratzi,
bedratzi ko-ru-ek. Zor-tzi, zor-tzi ze-ru-
ek. Zazpi sakramentu-ek. Sei-rek
di-re kan-de-lak. Bos-tak Kristo'ren lla-
gak. Lau-rek e-ban-je-lis-tek. I-ru-rek
Trinidade-ak. E-ro-ma'koal-ta-re santu-ek


bi. Gu-re Jauna be-ra dok bat, berak sal-
bau-ko ga-yo-zak.
10
San Mar-tin, e-saik a-mar. A-mar
mandamen-tu-ek. Be-dratzi, bedratzi koru-
ek. Zor-tzi, zor-tzi ze-ru-ek. Zaz-pi
sa-kra-men-tu-ek. Sei-rek di-re kande-
lako. Bos-tak Kristo'ren lla-gak. Laurek
e-ban-je-lis-tek. I-rurek Trini-da-de-
ak. E-ro-ma koal-tare santu-ek bi. Gu-re
Jauna be-ra dok bat, berak sal-bauko ga-yo-zak.
11
San Mar-tin, esaik ama-ka. Amaka


mi-lleainge-ru-ek. A-mar mandamen-tu-
ek. Be-dratzi, bedratzi ko-ru-ek. Zor-tzi,
zor-tzi ze-ru-ek. Zaz-pi sa-kra-mentu-
ek. Sei-rek di-re kan-de-lak. Bos-tak
Kris-to'ren lla-gak. Lau-rek e-ban-ge-lis-
tak. I-rurek Trini-da-de-ak. E-ro-
ma'koal-ta-re santu-ek bi. Gu-re Jauna bera dok
bat, berak sal-bau-ko ga-yo-zak.
12
San Mar-tin, esaik ama-bi. A-ma-bia-
ma-bia-pos-to-lu-ek. A-ma-ka mi-lleain-ge-ru-
ek. A-mar mandamen-tu-ek. Bedra-tzi,


3
bedratzi ko-ru-ek. Zortzi, zortzi ze-ru-
ek. Zazpi sakra-men-tu-ek. Sei-rek
di-re kande-lak. Bos-tak Kristo'ren lla
gak. Lau-rek e-ban-je-lis-tek. I-rurek
Tri-ni-da-de-ak. E-ro-ma' koal-ta-re santu-ek
bi. Gu-re Jau-na be-ra dok bat, berak sal-
bau-ko ga-yo-zak.

## PENTAGRAMA

San Martin'en kanta

1) –San Martin, esaik bat.
–Gure Jauna bera dok bat,
berak salbauko gayozak.

2) –San Martin, esaik bi.
–Erroma'ko altare santuek bi,
gure Jauna bera dok bat,
berak salbauko gayozak.

3) –San Martin, esaik iru.
–Iru Trinidadeak.
Erroma'ko altare santuek bi,
gure Jauna bera dok bat,
berak salbauko gayozak.

4) –San Martin esaik lau.
–Laurek ebanjelistek.
Irurek Trinidadeak.
Erroma'ko altare santuek bi,
gure Jauna bera dok bat,
berak salbauko gayozak.

5) –San Martin, esaik bost.
–Bostak Kristo'ren llagak,
laurek ebanjelistek.
Irurek Trinidadeak
Erroma'ko altare santuek bi.
Gure Jauna bera dok bat,
berak salbauko gayozak.

6) –San Martin, esaik sei.
–Seirek dire kandelak.
bostak Kristo'ren llagak.
Laurek ebanjelistek.
Irurek Trinidadeak.
Erroma'ko altare santuek bi.
Gure Jauna bera dok bat,
berak salbauko gayozak.

7) –San Martin, esaik zazpi.
–Zazpi sakramentuek
Seirek dire kandelak.
Bostak Kristo'ren llagak.
Laurek ebanjelistek.
Irurek Trinidadeak.
Erroma'ko altare santuek bi.
Gure Jauna bera dok bat,
berak salbauko gayozak.

8) –San Martin, esaik zortzi.
–Zortzi, zortzi zeruek.
Zazpi sakramentuek.
Seirek dire kandelak.
Bostak Kristo'ren llagak.
Laurek ebanjelistek.
Irurek Trinidadeak.
Erroma'ko altare santuek bi.
Gure Jauna bera dok bat,
berak salbauko gayozak.

9) –San Martin, esaik bederatzi.
–Bederatzi, bederatzi koruek.
Zortzi, zortzi zeruek.
Zazpi sakramentuek.
Seirek dire kandelak.
Bostak Kristo'ren llagak.
Laurek ebanjelistek.
Irurek Trinidadeak.
Erroma'ko altare santuek bi.
Gure Jauna bera dok bat,
berak salbauko gayozak.

10) –San Martin, esaik amar.
–Amar mandamentuek.
Bederatzi, bederatzi koruek.
Zortzi, zortzi zeruek.
Zazpi sakramentuek.
Seirek dire kandelak.
Bostak Kristo'ren llagak.
Laurek ebanjelistek.
Irurek Trinidadeak.
Erroma'ko altare santuek bi.
Gure Jauna bera dok bat,
berak salbauko gayozak.

11) –San Martin, esaik amaika.
–Amaika mille aingeruek.
Amar mandamentuek.
Bederatzi, bederatzi koruek.
Zortzi, zortzi zeruek.
Zazpi sakramentuek.
Seirek dire kandelak.
Bostak Kristo'ren llagak.
Laurek ebanjelistek.
Irurek Trinidadeak.
Erroma'ko altare santuek bi.
Gure Jauna bera dok bat,
berak salbauko gayozak.

12) –San Martin, esaik amabi.
–Amabi, amabi apostoluek.
Amaika mille aingeruak.
Amar mandamentuek.
Bederatzi, bederatzi koruek.
Zortzi, zortzi zeruek.
Zazpi sakramentuek.
Seirek dire kandelak.
Bostak Kristo'ren llagak.
Laurek ebanjelistek.
Irurek Trinidadeak.
Erroma'ko altare santuek bi.
Gure Jauna bera dok bat,
berak salbauko gayozak.

## NIRE OARRAK

1) Lenengoz, Zeanuri'ko errian bilduak.

Zeanuri'tik urbil, "Billaro"rako aintzineko errege-bidean„ "Olabarri" auzoa dago, eta emen, errota.

Errotako etxeko andrea, Simona Intxaurbe, an urbil, mendien barruan dagoen "Uribe" auzoan jaioa eta azia; eta gero, "Olabarri"-ra ezkondu zena.

Ori, etxeko andrea. Eta etxeko jauna, Benigno Pujana.

2) Benigno Pujana onek, esaten zidan:

"Neure amama eta emengo jende asko, Kolaziñoko jendeagaz batera, "Linpias'ko Santo Kristo'ra" joan gintzazan, ni txiki nintzanean; eta bidean, beste kanta batzuen artean, "San Martin'en kanta" au, kanta eta kanta oi eben jendeek. Orduan ni mutiko txikia nintzan."

3) Azkue jaunaren *Cancionero popular vasco*, Retanak argitara emana bi tomo aunditan; eta *Euskalerriaren yakintza,* Madrilleko "Espasa Calpe"k argitara emana lau tomo aunditan, bietan dago kanta orren olerkia edo letra. Baina musikarik ez dago; kanta guztien musikak onekin guztiz ezberdinak dira.

4) Gorka Knör, Gasteiz'ko abeslariak, *Zeruko Argia*'n "Araba'ko kantu zaarretaz" lan polit eta irakurgarria atera zuen. (Ikusi Z. A. 1974, Abuztuak, 4-11, 596-597 zenbakian, 16 garren orrialdean).

"Araba'n kanta zaar asko zela, dio; baina ez zituztela bildu.

Kanta zaar orrein artean, bazela bat, esaik bat", Legutio'n bildua.

* * *

Orain galdetzen dut nik:

"Nik Zeanuri'ko Olabarri auzoan jasoa. Azkue'k bere bildumetan ez dakarrena, ez al da Knörr jaunak dioen, Araba'ko kanta zaharren bat izango...?

Ez da Legutio'n kantetan zen ura bera izango?

Kontura gaitezan Araba'ko euskalkia bera bizkaiera zela. Eta gainera, Legutio eta Zeanuri ez daudela ain urruti elkarrengandik.

5) Esaik bat = esan egik bat.

Salbauko gayozak = salbauko gaitu.